

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

127n. Zenbakia

Otsaila
Zezeilla
1989



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



Altuna ta Mendiola'tar Josu, 1909-4-7'an Zornotza'ko Pagola-Bekoa basetxean jaioa, Ander eta Maiton'en semea, amabi nebarrebaren artean bederatzigarrena. Amalau urtekoa zala Galdakano'ko Gumuzio edo Erletxeak deritxon auzoko Basakiña-barrena'ra etorri zan bizitzen. Arrezkero erri onetan bizi izan da.

GALDAKAO'ON IL DA
(1989-1-2'an)

BASERRIAK

Aldizkari onetan, 123 zenbakian, argitaratu zan nik egindako idaz-lan bat. "Basetxe" zan bere izena. An ikusi al genduan geure basetxen ezin-geldituzko urritasuna ta ondamendi tamalgarria.

Gaur iruditzen jat egokia izango litzakela, azterrenak artu ta basetxen asierari buruz zeozer esatea. Zelan sortu ziran euskaldunok ain maitegarri doguzan basetxeak eta orain, zoritxarrez, ostentzen ari diranak?

Jakiña da, gaur ezagutzen doguzan basetxeak ez dirala lenengoztik geure antziñeko asabak egin ebezan antzekoak. Urteak joan urteak etorri, luzeren luze, aldaketa asko izan dira. Apurka ta astiro-astiro, iñork konturatu barik, aldaketa orreik ekarri dauskuez gaur ikusten diran basetxe onak eta askotan lerdan eta ikusgarriak.

Euskalerrinari dagokiozan azter-gaiak beti izan dira ulergaitzak, illuntasunean dagozan ezkutu edo misterioak. Naiz abenda izan, naiz izkuntza izan, aztartzerakoan jakitunak or dabiltz beti nora jo ez dakiela. Basetxen asierari buruz beste orrenbeste jazoten da. Edeslariak ez dira uste edo ipotesis bardiñezkoak. Norbera bere bidetik doa gauza ber bera adierazteko.

Dana dala, gure asmoa lortu gura ba'dogu, norbaiteri jarraitu bearko dautsogu bere irizpide edo aburua azalduz. Gure errikide dan Iturriza jauna izango da oraingoan gure gidaria. Gai onetzaz bere *Bizkai'ko Edestia'n* zerbait esaten dauku. Bere iritxian, eta ortan beste edeslari batzuk be ados dagoz, antziñako euskotarren egoitzak goienetan egon ziran. Aberentzako larrea bertan egotea, euriketak beko zelai ta arrupetan egingo leikezan kalteak, dana ondo ikusi bearra erne egoteko-edo, mendi tontorretan egin ebezan euren bizi-lekuak

Lenengoz leiza, arzulo, txozna eta bordatxoak anporraz egiñak ziran. Gero inguruko albo guztiak adar, zotazal eta bedarraz estaldu egin ebezan, aizea ta otza sartu ez eitezan, eta bein ondo itxita geratu ezkeren *"itxiak"* deitu jaken. Luzeren luze, lenengo izkia *"i"* aldatu egin zan *"e"* biurtuz, eta azkenez *"etxiak"* geratu zan. Olan sortu ei-zan etxearen izena. Danok dakigu basetxea (basetxia be esaten da) basoan dagozan etxiak dirala. Nik uste dot ikusi dogun aburubide au polita dala ta, onezaz gaiñera, ziñesgarri be al-izango litzakela.

Beste erri askotan bezela, Euzkadi'n be lenengo biztanleak eiztari ta artzaiñak izan ziran lugiñak baiño lenago eta, len esan dogun bezela, goienetan egin ebezan euren lenengo bizi-lekuak. Geldiro eta pizkaka goiko tontorretatik magal, aran eta mendi-bitartera jatzu eta nekazaritza arlorra lotu ziran. An jarraitu eben euren etxe asi-masikoak egiten, geroago obeto eta baita aundiagoak be etx-abereak sartzeko.

Aspalditik etxe guztiak egurrez egiñak ziran. Oraindiño ba-dago onelako etxeren bat, ez asko izan be, baiña bai batenbat eredutzat erakutsi al-izango leitekena. Gero etxe sendoago ta egokiak egiteko, arria erabiltzen asi ziran eta etxegintzan arrizko ormaz egindako etxea agertu zan. Au ikusitakoan, gauza nabarmena iruditu ei-jaken eta *"Ormaetxea"* deitu eutsoen. Olan sortuko zan ain ugaritsu dan izena ta abizenen iturburua. Beste aldi batean, eta etxegintza obetuz, etxegaiña edo teillatua aldatu egin eben. Ordurarte oltxoz ezaltzen ziranak oltxoan ordez lur egositako teillak ezarri ebezan. Au be nabarmena izan zan agian, *"Tella-etxe"* deitu eutsoen-eta. Emen be "Ormaetxea" izenagaz jazo zana berbera jazo zan: izena Euskalerrian zear zabaldu, euskotar askori abizentzat emonaz.

Onelan, astiro astiro, basetxeak obeagotu egin ziran arik eta gaur egunean ikusten doguzan antzekoak izan arte. Geienetan basetxe bean ezkaratz eta kortea egoten dira, lenengo oiñan lo-gelak eta gorago ganbarea aberentzako bedarra ta enparauko gauzak gordetako. Geienbat bizitza bakarrekoak izaten dira, baiña ba-dagoz bizitza bikoak be ta, noizean bein, irukoak be ikusi al izan leikez, naizta bakana izan. Baiña au ez da erabili gura dogun gaia, etxegintzako arloa dan ezkeren.

Ikusi dogu, aundizka bada ere, basetxen asiera ta oneik euki dabezan aldaketak. Amaitu baiño len, basetxen izenari buruz zertxobait esan gura geunke.

Basetxeak beti euki dabez bererizko izenak eta oso adierazgarriak dira, naizta batzuetan nolanaiko sasi-aldaketen bat sartu ta illunduta geratu. Euskotarrak, len esa dogun lez, lugin edo nekazari baiño lenago eiztari ta artzaiñak izan ba'ziran, bidezko izango da euren bizimodu ta zeregin barrira etxeak be egokitzea. Basetxen izenak ori adierazten dauskue.

Lekuona jaunak berak idatzitako *"Oiantzun Antziñekua"* idatzian, emoten daukuz olako arau edo ezaugarri batzuk basetxetatik zeintzuk diran artzaintzatik edo nekazaritzatik sortuak ezagutzeko. Basetxeak goienetan ba'dagoz edo beren izenaren barruan *borda*, *korta*, *sarobe*, *larre* edo alakoren bat aurkitzen ba'dogu, artzain-basetxeak, jatorrizko beintat, izango dira: Goienetxea, Goikoetxea, Kortabarria, Alkorta, Larrea, LarrazabaL.. Beian edo erriberatan dagozanak edo beren izenean *soro* daroenak, nekazaritza izango dira: Bengoetxea, Etxabe, Sorozabal, Soroeta... Etxe izenaren barruan ugazabaren izena sartzen danean, orduan be lugin edo nekazarien basetxea dogu: Perurena, Juanena... Ba-dagoz beste arau batzuk, baiña aipatu doguzanak argienak eta sarritakoak dira.

| ELEIZA TA LATERRIA I

BARRI ONEAN

Farisaitarrak gogorki artzen eben beti Jesus. Maltzur urreratzen ziran Beragana. Jesusek ondo ezagutzen ebazan euren asmo txarrak. Erri osoak jarraitzen eutsan Jesusi ta maite-minduta egozan bere itzaldiak entzutean eta mirariak egiazanean. Ondo ekien farisaitarrak, baiña aurrera ekien Jesusen aurka.

Batzar bat egin eben farisaitarrak. Alkar-izketa bat eukiko eben Jesusegaz agirian eta zerga-gaia jarriko eutsoen. Zaratatsua zan garai aretan gai au. Ordaindu bear jakon ala ez zerga Kaiserrari. Bakoitzak zerga bat ordaindu bear eutsala Laterriari agindu eban garai aretan Kaiserrak. Agindu au judiutarrentzat be ba-zan, baiña judutar askok ez zala ordaindu bear iñoen eta menpekotasunik agertu be ez erromatarrei zinisgeak ziran-da, eurek ostera Jainkoaren erria.

* * *

Gaia zorrotza zan ba, arriskutsua. Ondoren txarrak ekarri leikeozan Jesusi. Baietz erantzuten ba'eban Aberriaren askatasuna ukatzen zan. Ostera ezetz erantzuten ba'eban Romaren aurka jokatzea zan.

Bertan Jerusalemene egoan Kaiserraren Ordezkarria ta arek bereala jarriko eban jakitun Kaiserra.

Ze jokabide artu bear eban Jesusek? Garaipena eskue-tan eukela-ta egozan farisaitarrak. Batzartu ziran ba ta jakitun eta maltzurren-tarteko urtenenak aukeratu ebe-zan Jesusekin alkar izketa eukiteko.

Maixu —esan eutsoen aukeratutakoak— egiti zarala ta batez be jainko-bidea zuzenki irakasten dozula ta ezeren ardurarik ez dozula ondo dakigu. Esan eiguzu ba: "zillegi al jaku Kaiserrari zerga ordaintzea ala ez?".

* * *

Laster ikusi ta oartu eban Jesusek euren asmoa ta erantzun bearrean galdera au dagitse bigunkiro: Zergaitik zirikatzen nozue maltzurrok alakook?

Eta eskuetan euken dirua eskaturik ba-diñotse: "Norenak dira irudi ta ikurritz oneik? Kaiserrarenak zirala erantzun eutsoen areik eta orduan Jesusek ba-diñotse bigunkiro ta zintasunez: Emon egiozue Kaiserrari Kaiserrarena dana ta Jaungoikoari Jaungoikoaren dana."

Erantzun argia ta sakona ziñez. Maltzurkerian arrapatu ebazan Jesusek eta ezin erantzunda alde egin bear izan eben ixilik eta buruz-bera.

Irakaspen ederra damosku Kristok farisaitarren maltzurkeriei emondako erantzunean.

Nor da Kaiserra? Lurreko agintaria da guretzat. Beraz Kaiserrari berea dana emon bear jakola esatean, lurreko agintariari berea dana emon bear jakola esan gura eban, au da, menpekotasuna zor jakola.

Jaungoikoak ontzat artzen dau ba munduko agintarien menpekotasuna, aginpidea, baiña munduko agintariaren nausitasuna beste maillako bezala artzen ete dau? Ez, Jesusek Berak egiztu eban au Nekaldian Erromako Ordezkarriagaz izan ebazan itz laburretan: "Ez zenduke Nigan eskubiderik eukiko goitik etorri ezpa jatzun."

Bardin Paulo doneak geroago: "Ez da Jaungoikoagandik ez datorren aginpiderik."

Aginpide guztiak Jaungoikoagandik datoz ba. Ez da zalantzarik onetan. Egiz, Kaiserrak bere eskubideak daukaz eta gizon danak onartu bear dabez eskubideok. Alan be eskubideok ez dira askeak, Jaungoikoaren maillakoak be ez. Ostera areik Jaungoikoarenaren menpean dagoz Jaungoikoagandik jatorkoz-da.

* * *

Kristoren irakatsia argitu gurarik au diñogu: "gizarte —bazkun bi dira mundu onetan; ezbarriñak baiña sortze bera dauke ta beraz ez dira alkarren aurkakoak.

Bazkun biok Eleiza ta Laterria dira. Eleizea Jaungoikoaren Ordezkarria da ta Laterria erriarena. Bakoitzak bere eskubideak daukoz. Laterriko guztiak Nagusiaren aginduak onartubearra dauke aginduok eta legeok Jaungoikoaren aurkakoak ez diranean. Jaungoikoaren aurkakoak diranean ez dago artzeko beartuta, naizta Laterriaren aginduak ostikopetu, ezkubideok ba ez dira egizkoak, ostutakoak baiño.

Au olan-dala arau au jarri daiteke:

1. Katolikoak begirunea zor dauksa Laterriari, orobat bere ordezkarriari euren nagusitasuna Jaungoikoagandik dator-da.
2. Katolikoak menpekotasuna zor dauksa Laterriari ta zuzenki bete bear dauz aginduak eta legeak erriaren onerako baitira.
3. Katolikoak zergak ordaindu bear dauz erriaren premiña ta ezbear eta aurrerapideari laguntzeko.

AGUR, BASAJAUN

Altuna'tar Josu "Basajaun" joan jaku, eta bere erioztzak samintasunez bete gaitu.

Eta isil-isilik joan be. Egun aretan (urterillaren bian il zan baiña iruan agertu zan bere il-iragarkia DEIA'n), ez neban izan goizean DEIA irakurteko erarik, Donibane Liotzun'era joan-bearra izan neban eta etxera eldu nintzanean berandu zan illetara joateko. Samintasan aundia izan zan eriotza orren barria jakiteak gugan sortu ebana. Jaunak bere atsedenean artu dagiala gure lankide arduratua, gure abertzale sutsua.

IKUSTALDIAK

Noizean bein etorten jatan Josu ikustaldia egitera eta alkar-izketa gozatsu baten, arazoak alkarragaz aztertze gogoz, bai Bermeo'ra eta bai aspaldion Mungia onetara.

Beti ikusi neban gure Erriaren arazoai buruz oso arduratuta eta ardura ori lan biurtzen zan arazoa ikusten eban lekuan bere laguntza ezarteko. Galdakao'n bertan be bein baiño geiagotan izan genduan itzaldien entzule apal eta ikasteko gogo bizia agertzen.

LANAK

Basajaun'ek illero bialtzen eban gure ZER onetara-ko idaz-lanen bat. Azkenengo zenbakian iru agertzen dira eta oraingo onetan be bai beste bat.

Berak esaten eustan lez, bere euskerea landu bakoa zan eta zerbait zuzendu-bearrekoa be bai, baiña aldizkari askotan eta sarritan idazten eban, DEIA gure egunkarian be bai noizean bein, Zuzendariak onartzen eutsozanean.

Altuna'ren lanak arlo oneitan batez be agertu dira: Aberrigintzan (bere alderdia bide zala batzutan, aberri-giro utsean beste batzutan), euskeragintzan, mendigoizale arloan eta gazteen eziketa-bidean.

MENDIGOIZALE

Gaztetatik eukan Basajaun'ek zaletasun au eta asko dira berak oinpean izan dituan mendi erpiñak, batez be Euskalerrikoak.

Arazo oneri buruz idazten be zalea zan eta idaz-lan bat bialtzen ebanean geienetan, argazki bat be bialtzen eban. Liburutxu bat be idatzi eban onetzaz.

Zaletasun orrek eraginda sortu eban Galdakao'n Ganguren Taldea, gazteak mendizale biurtzeko, eta lan aundia egin eban orretan.

Zori txarrez, aspaldiko urteetan osagilleak debekatu eukan mendietara oiñez igotea. Berak sarritan agertzen eban debeku orrek barruan sortzen eutsan samintasuna.

ESKOLATU-BAKOA

Lotsa barik esaten eban gure Josu'k, berak gaztetan ez ebala izan eskolara urreratzeko erreztasunik eta euskerea lantzeko be ez zartzarora arte eta zartzaroan kirioak gogortu egiten dira. Izkuntza eskolara be urreratu zan agiria aterateko, baiña ezetza lortu eban.

Galdakao'ko bizargiña zan "Basajaun" eta lanbide orregaz bera ta etxeokak biziteko bear ebana atera eta bitarteetan egiten ebazan beste lan guztiak.

ESKERRAK ETA AGUR

Eskerrak emon bear dautsaguz ba gure idazle oneri ain biotz zabalaz emon dauskun laguntzagaitik. Doan eta erriaren onerako egiten dan lan oneri zor jako gure esker ona.

Eskerrak eta agur. Geiago ez dogu izango bere idazkiak irakurteko erarik. Izango al dogu Aitaren etxean alkartzeko zori ona.

4. Katolikoak soldadutza egin-bearra dau Laterriaren askatasuna ta bakea zaindu ta sendotzeko.

Baíña katolíkoak betebearrak ba'dauz Laterríagaz, bere eskubideak be ba- dauz. Au olan-da katolikoak eskubide oneik daukaz:

1. Laterriak begirunea izan bear dautsa katolíkoari bere erritar eta menpeko dan ezker. Orobat Laterriak laguntza izan bear dau, bai beretzat eta bai bere sendíarentzat. Ondasunak eukiteko eskubidea be ba-dauka.

2. Gizarte ta polítika-gaietan parte artzeko eskubidea dauko katolikoak, adibídez, autarkía emoteko berak gura dauanaren alde.

3. Katolíkoak bere Laterrian erlijio-zeregin danak betetzeko eskubidea dau. Orobat katolíko bazkun eta alkarteetan izena emoteko.

4. Katoliko dan Laterri batean eta katolíko diran aldetik, katolikoak eskubidea dauke katolíko sinismena zaintzeko.

Eta zelako betebearrak daukez katolikoak Elizari buruz?

Elizak be bere eskubideak daukoz. Bere Buru orokorra dau: Aíta Santua, lurrean Jesukristoren Ordezkaru dana. Aita Santua "Ex Catedra", mintzatzen danean, eta, sinismen-gai ta oíturái buruz danean, Jaungoikoaren izenean mintzatzen da ta bere agindua bete-bearra dauko katolikoak, Aita Santua baita katoliko danen buru.

Laterriak ontzat artu bear dauz Eleizaren eskubideak eta nausitasuna ta egundo ezin artu leíkez bídetzat izkílluak eta gogorkeria Eleizaren aurka egiteko, ostera, Laterriak nolabait Eleizaren esanera egon bear dau.

Laterriak lagundu egin bear dautsa Eleizari bere lana aurrera eroan dagian. Katoliko guztiak begirunea ta menpekotasuna zor dautsoez Eleizari bere nausitasuna Jaungoikoagandik dator-da. Bere alde egin bear dabe Laterriak gogorkeriaren bidez Eleizaren aurka jartzen danean norbait bere eskubideak zapaldirik.

Kaiserrari kaiserrarena ta Jaungoikoari Jaungoikoarena. Ona Kristok danoí damoskun irakaspena.

GOIRIA

O BANBAKO SO PENARI

Miren, agu , Ama,
 Ama maitega ija,
 Bizkaya'ren euzkija.
 Jaunaren Ama laztana, agu !
 Amen seme maitekoak.
 Zeugana elduta
 Nega -bijotzaz,
 Lepuan kale gogo ak...
 Miren, Amatxu!
 Míren, Amatxu, Amatxu!
 A tu eíuz nega ok
 Ta jagon bixkata ok
 Maitetasunaz,
 Ta Bizkaya,
 Askatuta,
 Zeuria izango da beti.
 Bai, a en!

A LA INMACULADA CONCEPCION

Maria, salve, Madre,
 Madre amable,
 Sol de Bizkaya.
 ¡Madre amable del Señor, salve!
 He aquí a tus amantes hijos
 Llegados a tí
 Con corazón de llanto,
 En las espaldas las duras cadenas (soportando)...
 María , Madrecita!
 María , Madrecita, Madrecita!
~~Rogamos~~
 Y guarda a estos bizkainos
 Con amor,
 Y Bizkaya,
 Libertada,
 Sera siempre tuya.
 ¡Hazlo, te rogamos!

ARANA-GOIRI'tar SABIN'ek
 IDATZIA (ABESTEKO)

| ELIZA BARRIA GUREAN I

Naure amama maite
ikusi al dozu?
erri auzune barrin
eliz sortu dausku
etxeen erdi erdin
ernai ta gorantzu
ezkondu barrin antza
daukazu barretsu
Ames egin gaurkoan
pozez ta gogotsu
onuraren iturri
bera egiz iatsu.
Egunak joan da etorri
geldi geldi lantsu
orain utsirik diran
biotz eta barru,
lozez eta igaliz
ak beteko ditu.
Biotzaren betete
maitasuna dozu,

Maitasun aundiena
Jainkoa maitatu,
orren ondoren dator
gizon begiratu,
Gure eliz barriak
biok sortzen ditu.
Maitasun bi orrekin
erria osotu.
Laister auzuna dana
Kristau osasuntsu
GURE ELIZ BARRIA
BIOTZEZ TXALOTU
KANPAIAREN DURUNDA
ENTZUN BEI SOÑUTSU
IBAI MENDI ZELAIK
ERRITAR GUZTIK
ELDU DA ZUEN ORDU
DURUNDAZ ITXARTU.

GALLASTEGI TAR KAULDIK (t)

MAITETASUNEZKO EMOITZ LEGUNA

Maitetasunezko emoitza sortzalle.
Arginabarrak abes dagi. Au pozkari!
Argitze goiztar, eder oni, poza dario.
Au gure begi-biotzen goiz-giro, ele-mele!

Izadiak abes dagi lainkozko abotsez;
abes dagi biziari darion pozean,
abes, ikusiz negua ba-doala bein batez
euzkiaren udabarritar gozotasunean.

Dana da gentz, itxaropenezko gogai, mezua,
edatu dana bularrrik bular, maitasunez,
ao batez oiukatuz bizitz-etorki, zantzua.

Urretxindorrek ezin dau estal bere poza,
erle, txori, ingumazko bizitz durundi ozenez,
ernaldi barri baten itzarkunde abotsa!!

(1988)

MUNIATEGI-TAR SABIN

1989 URTEBARRI ZORIONTSUA

Urte oso bat orain joana dogu
ta, beste bat, geitzera datorkigu;
aztu dagigun beraz, ildakoa:
ona edo txarra, izandakoa;
Beraz, baketsua izan dedilla
atseginkorra, urte barri onen
igarotzea, benetan on, ixilla,
orduz ordu, elburura gaitezen
gizarte alkargarri baten billa.

Samindura bako igarotzea
izan bedi, urte joate bizitza,

eragozpen nekeak izanarren
bizitz beraren ainbat arantzaren
egun-ikutu mingarritz betea;
onena da eroapenez artzea,
ikasirik munduko izatea.

Bearrezkoa ogia billatzea,
bizar be, izan dedin etxean
gari ogi zati bat, bearrezkoa,
langilleteri beartsuentzat, beñipein,
ona da orretzaz arduratzea,
bizi-poza izateko gurekin.

Abestu bada Gabonzar egunez,
abestu baita gogoz, urte barriz,
biotzak pozbidetuz maitetasunez,
egunen gorabera eta zoriz
lainkoak nai dabena izan dedin,
egin dagigun ba egin alegin!!

MUNIAGETI-TAR SABIN

NORBERA OSAGILLE ZAINZAILLEA

Ez dago zer esanik. Norberak jakin bear dau, zerk egiten dautson kalte edo zer doian bere osasunaren aurka.

Batek izan bear dau OARKARIA bere onerako edo txarrerako zer dan jakiteko.

Gai onetan ZENTZU apur bat euki bear dogu gure buruan, orí ez ba'dago ez dago zer-egíñik.

Gure JOKABIDEAN beti egon bear da ATE bat zabalik, ALDAKUNTZA bat egiteko onera, edozein ordutan.

Egoera eta EZIERA txar batzuk egiten jakuz OPAGAI, ta onek ez dau esan gura, ezin geintekela ALDATU gure bizimoduan.

Gure UNE guztietan aukeratu bear dogu guretzat ONENA, gure bízitzaren arduradun bagara.

Gizonen SOIÑA ta GOGUA ez dagoz bananduta, ez dira gauza BI GIZAKIA, BATASUN OSAGARRI BAT DA.

Bizitzan jazoten yakun guztiak OZENDU edo OTS egíten dausku, naíta gu konturatu ez.

Egunero STRESS'ak (ardura larregí), gogo-ezak lane-rako, KUNDETASUNA atxiketea edo atzeratzea, itz BIOZKAIK ezeztutea, beste gauza txar batzuen antze-rakoak dira, esate baterako; jan ta edan gaiñezkoak, drogak artzea edo KUTXADURAKO toki baten bízitzea.

Edozein ASTRABALO bizi doakíona (desequilibrio vital), da bakarrik guretxat, DEI BAT, une onetan gorputzak diñosku zu ez zabiltz ondo eta ALDATU egin bear dozu.

Orduan gure soiñean biztuten da ARGITXO bat, dirauskuna: zerbait ez dabil ondo GUGAN.

Argitxu orrek diño: Zeozer aldatu bear dozu, ostan-tean, zure egunero jokabidea txarto dabil ta atzerantz egingo dozu.

Adibidez: Erretzen dauanari esaten dautso: EZ EIZU ERRE, geiago. Orduan gizon burutsuak bertan bera ítxiko dot ERRETEA.

Orí da gizon ta emakume burutsuak ízatea.

Badagoz jarraitzen dabenak, ta onen egunak kontautu dagoz.

Ze itxura edo AURPEGI aldatu bear da?

Orí TOPATZEA izan bear da gure zer egíñik lenena, osasuna zaintzeko ta obetuteko.

ZABALPEN orren ZEAR, AZI ta aundituko gara oso pozík ta ondo.

Osasuna ta norberen ALDAKUNTZA ta azitea, dan danak LOTUTA doaz gure bizitzan.

Gizaki jakínsu batek esana da: Sinistu bear dogula, ate bat dagoala zabalik edozein ordutan aldaketa egiteko.

Abereak egíten dabena egin geínke: Toki baten jateko URRI dagonean, egazka janaren billa joaten dira, kilometro asko ibiliaz.

Gure osasuna, txarto dabillenean orixc berberori, egin bear litzake gugan.

NORBERA OSAGILLERIK ONENA

Idazpuru au onelan ípiñita, esan geinke, kokolo baten ítzak dirala, baiña nik uste dot ez dala ain kokolokeria.

Batek jakin bear dau zelan dabillen, zerk egiten dautson kalte edo ON, zer sartu dauen bere urdaillean ta abar. Aspaldion gaixo-etxe askotan egon naz, agaitik edo onegaitik.

Beti ízanik OARKUNTZA aundikoa, an topau dodazan jenteagaz, gaixo ta ez gaixo, mota guztietako jenteaz berba egin dot, orduan an íkusten dan jentea, ze modukoa dan, zergaitik dagon bertan, eta zelako ibillerak euki dabezan gaixo guztiak.

Eurei entzunaz, ondorengoa ateraten dozu, amarretik, zazpi buru barik ibilli diralako, íñoiz jaramonik ez dautselako egin gurasoen oarrei; nai daben modura ibilli diralako.

Beartasun gabe arriskuan sartu diralako, geienetan.

Oker bizi danak, amaíera ona ezin euki.

OSASUNA

LAGUN BATEK ESANA

Ondiño ez da denbora asko alkar-izketa baten esan eusten: Aspalditxuan ez nabil ondo. Izugarrizko miñak daukadaz garrian. Badakizu, batek min daukanean osagillarengana joaten da.

Ni be, beste batzun antzera joan naz batengana. Bots minutuan bere aurrean jarri, itaun batzuk egin ta askenean diñaut: Artu egizuz osaki onek ta emendik illebetera etorri zaite.

Aldi ori igaro, osakiak artu ta MIÑAK berdin edo antzera jarraituten eusten. Bots PLAKA atara ta gero, ez da ikusten ezer jarraitu osakiokin.

Batekin naskatuta irugarren illean beste batengana. Onek be bost PLAKA, atera ezer ikusi ez.

Beste osaki batzuk emon eta aurrera. Gogaituta birabat, beste bat, aurrera.

Lau illebeteen onela jarraitu, IRU osagilleekin ibilli eta MIÑIK kendu ez.

Gogaitu batekin eta bestekin eta esan neban:

IZADI GARBIAK eta EGUZKI beroak kenduko dauts MIN au.

Onelan beroak zelan etorri ziran gure lurraldera, miñen aldea ipiñi eguzkitan, luzaro egon onela ta ogei egun barru osatu yakon bere txartasuna.

AOLKU BATZUK

Astiro bizi, presa barik. "Stress" barik.

Zure arimea Garbi, Ziñezko, Indartsu ta Sendo euki, onela gauza danak urtengo dautzu ONDO.

Ez sinestu bakarrik zagozala, zure atzetik eta inguruan, jente asko ta ona dagola.

Pentzau zure inguruan GUDOSTE izugarri bat dago-la. Onenetaikoa.

Gure GOGOA goialdean asmatzen badago, ez da txarrik etorriko.

Geure etsarik aundiena, GEU gara sarritan.

Bildurtia ta IDURIKOITUA ez izan datorkizunera-ko, Jainkoa zure ondoan daukazu ta.

Jabon eizuz AOLKU oneik eta zure bizimodua, zorionsua izango da.

ETXEBERRI'tar ISIDOR



EUSKERAZLEAK

IPIUN-SARIKETA

SARIAK

- 1.^o saria: 40.000 pezeta, Goikoetxea'tar Iñaki'ri.
- 2n. saria: 30.000 pezeta, Bergaretxe'tar Joseba'ri.
- 3n. saria: 20.000 pezeta, Zubikarai'tar Augustin'eri.
- 4n. saria: 10.000 pezeta, Alzola ta Barinka'tar Elixé'ri.

ZORIONAK

ABERASTU

BATUA

Euzkotarron izkuntzak, euzkerak, beste izkuntza lan-duak lez bera zaindu, landu ta al'bada aberaztutzeko Euskaltzaindia eratu zan eta, urte askotan asko edo gitxi orretara iraun ba'eben be, bera osotzen eben euzkaltze jatorrak, orain urte batzuk "Real Akademia" orrekin jabetu ziran "euskara iraultza" nai ebenak eta, orretarako lenen-lenen "El Batua" izeneko eta asmatuzko "euskara mordoltoa" sortu eben, euzkaldunen tartean iñon zan nastea sortuaz eta, euzkera jatorraz ezetan ajolatu barik.

EUSKERAZAINTZA

Euzkeraren okerbide ori ikusirik, erri-euzkera benetan maite daben gizon da emakume mordo bat bildu zan eta ikusirik ez doiala bide zuzenetik Euskaltzaindia, eraiki eben Euskerazaintza, Erri-Akademia, baiña ez lozorroan jarraitzeko, erri-euzkera jaban eta al dan lekuraño landuteko baiño.

Zelan egin leiken ori? Aztuta aurkitzen diran jatorrak argitalduta, lateratik, ingeleratik, doistar eta beste izkuntzetatik gazteleratuak diran itz barriak, bear diran lez zustraitu bear diran izkiakin euzkeralduta. Orí da, gure ustez, euzkerak aberaztutea eta ez erdel-itz uts-utsak K bat edo tz bere edazkeran sartuaz beste barik eta czetariko lotsa barik idatzitekoak.

ALDIZKARI BARRIA

Orixe da Euskerazaintzak diarduan lan bikaña; erri -

-euzkerak garbiz idatzi eta beraz adibide ona adierazoaz zerbait euzkaraz idatziten dogun guztioi.


Orretarako, orain illa batzuk asiak dira aldizkari txukun bat argitalduten, aldi onetan diran euzkal-idazle onenen idazlan mamitsuak, irakurgarriak bertan argitaldu ondoren.

Benetan idazlan atsegingarriak Lino Akesolo, Luis Arostegi, Lategi'tar Bixente, Mitxelena'tar Manuel, Aita Onaindia, Kerexeta, Augustin Zubikarai, Olazar'tar Martín eta abarren idazkiak baiña, batezbere bear-bearreko genduban iztegia, orain artean argitaldu diran iru zenbakitan A. Zatarain'ek izenpetutako iztegia, ale bakoi-tzean eundaka erdel-itz, geien-geienak barriak, asieran esan dogunez, bear dan zentzunez euzkeralduta. Egiz, zorionik beroenak emon bearrean gara A. Zatarain eta bere laguntzailleai, orixe dalako benetan gure izkuntza, EUZKERA aberaztutzen dauana eta ez erdel-itzez jositako euskara-mordoilloak.

Badabe Euzko Jaurilaritzan euzkera-arloko ardura-dun diranak nun begiratu eta zer kasi .

Ba'dakigu orrelako iztegi oso bat egitea zailla dana, baiña benetan bearrekoa doguna bere bai, aurkitzen dan baiño erdel-itzez euzkera nastu baiño en . Orretarako, EUSKERAZAINTZA'k al'dabenan laguntza bear dau, gure izkuntza bear dan lez landuteko. Zenbat eta euzkerak txukunago, ainbat apaiñago izango da gure Euzkadi.

(t 1989-1-2)



IDAZLEAK

NOBERE GOMUTAK

Gitxien uste dan idatzia izaten jatzu sarri zabaldu ta irakurriena. Zergaitik ori? Olakoetan ereiten ei doguz, Unamuno'ren eritxiz, geure pentsamentu bikain zorrotzak.

Ni be, beste zer askoren artean, onako pentsamentuak eta gertaerak paper mutxikiñetan jarten asi nintzan urte batzuk direla. Eta or azkenez, gitxik asko dagiala-ta, liburu mardula osotzeko beste lan.

Irudikizunak ezker-eskuma zabaldu ta gauzak benetan artu ezker, beti ta noiznai da aintzagarri soloa naiz sendi bat ugarituz ikustea. Era berean errialdeko literatura be; gurea, barriz, askoz nabarmenago biurtu oi jaku ugaritasun orren ederpean. Ez ete diñozu oso urria dala gure literatura? Beraz, liburu barri bat ernetean, pozari emon bearra daukazu.

Eta nik liburu barri bat argitaratu dot. "Oroi-txinpartak?" Bai, orixe! Oraintsu kaleratu dana, 474 orrialdeko lan apaiña, diñoenz. Neure gomutak dira, ta larogei urteko gomutak. Urte askokuak, ezta? Egia, neure bizitzako oroipenak. Aizea lez astrapaladan iges joan diran urteetako oroitzak.

Gizonak bizi izanez eta idazleak lumari eragiñez, arima zatiak erein daroaz lugiñak solo autatuan azia legez, arian-arian, idazle bera sarri konturatu barik, zer dan eta nor dan, barruan sortu ta dakazan pentsamentu ta pentsaerak azaldu nai ditunak eta argitara emon nai ez leukezanak... Or geratzen dira aur jaio-barri antzera soin-dardar_ intziriz esku maitekor batzuen zain.

Orixo dozu nire seme barri au. Ez egiozu murzin, ez bai dau merezi.

Esan dot, luzaro bizi izana nozu. Bizitz-epe onetan, ez dira urte gitxi euskal arloan, lan eta lan, erre ditudanak: euskal lanak, liburuak, itzaldiak... aldizkariak sortu ta aurrera atera ("Karmel". "Olerti"). Euskalerriko eguneroko ta ta aldizkaririk geienetan lankide: iñork lanik eskatu ba'daust ez dot izan adorerik olakoari ezetz esateko. Neuk be, gaur arte, ez neban uste ainbeste lan burutu nebanik. Baiña or dozu egiñaren ekarria.

Neure lanean ez naz izan, egia autortzeko, goratua azalez beintzat. Neu be ez naz sekula txalo billa ibilli.

Bertoko ta kanpoko idazlerik asko negartzen dira, berbaz eta idatziz, zori oni alaka; Unamuno bera orrela ibillia dogu: aduaren agin-erakustea, itaregiaren antzera jokatur. Baiña, idazle txepel, ez ikaratu: egiak eta egiñak oparo saritzen.

Etsairik ez, baiña B. Etxepare'k izan zituan lako "izterbegiak" izan ditut polito inguruan; au ez da giro ta ezaugarri txarra izaten, lanean gogotsuago ekiteko eztena izan oi da-ta. Zer da "izterbegi"? Sinpatirik ez eukitea: lanak ixil-azo, muzin egin, txirotu, gaiñetik zapart egin, aitatu ez—. Euskera arrunt edo kalekoan "ondamu" edo "bekaitz" deritxo oni. Ezta iñolaz be birtute txalogarria.

Gaitz au, egia autortzen asi ezker, errialde guztietako idazleena da. Pekatu zabala nunbait. Sarri kidekoak eta ogibide bardiñekoak dozuz, alkarrekin, etsairik bizi gordiñenak. Ni Dueso'n egon nintzanean (1937-1938) an asko ziran olakoak, eta orixe zan esaten genduan. Nobera izan nai aurrelari, besteak baiño geiago. Ezin besteren onik iruntsi.

Baiña egiak, urak lez, bide egiten; euskal errian ba-dira olako eredu bikaiñak, aitz sendo ta tinkoak erditik arrakalduz egiñak. Nik sarri esana Amoroto'ko Zaindari dan Tours'ko Martin deuna gogora ekarriaz: azillaren 11'an dala Santu ospetsu orren eguna. Baita beste oldozkun au be: "Guk emen Larrea'n lau belarri-aundi daukaguz, jan ta lo patxadaz bizi diranak, baiña San Martin inguruan...

Dana dala emen daukazu, irakurle, nire bizitza. Neuk esana ta edestua. Ez da nobela antzera neuk asmatua, urtez urte bizi izana baiño. Euskal erriko azken istori barruan, euskal literatura barrutian oso-osorik bizi izana.

Iru zaitu daukaz idatzi onek, gaia naiko ondo egokitzen dabenak. Onela: 1) *Praille*; 2) *Gudarien Kapellau*, eta 3) *Idaz-lanak*.

Lenengo zatiak 148 orrialde ditu, bigarrenak 148 eta irugarrenak 146. Konturatu barik Dante'ren "Jainko Antzerkia" -ren pareko urten eustan; arek be iru zatitan

banatzen dau bere komedia: *Infernua*, *Garbitokia* ta *Paradisua*. Lenengoak XXXIV, bigarrenak XXXIII eta irugarrenak XXXIII kantu. Platon'ek diñoanez, neurria beti eder.

Lenengo zatiaren aurkibidea, ugaria da benetan, neure praille bizitzeari dagokiona. Ikasketak Larrea'n, profesia eguna, Markiña, Gasteiz eta Begoña'n ikasle. Meza barria Markiña'n. Eleiz-karrera amaiturik, Larrara, emengo bizitza ta lanak, gerra, gudari, espetxean, Hoz de Anero'n, Gasteiz, Logroño. Eremuan nagusi, Larrea'n, Eibar, izlari ta idazle, 1957tik gaur arte Zornotza'n, Larrako komentuan. Artu-emonak; euskera batua, Olerki-egunak, itzaldiak, jaiak, Zornotzako umetxoen olerki-egunak.

Bigarren zatian, gudarien kapellau lez agertzen naz. Gerra, nainundik erasoka; Irun sutan, Gipuzkoa frankotarren mende, jentea igeska sorkalderantz; Araba motel, Bizkaia sendo ta kementsu; Estatutoa; gudarien arimazaiñak. Ni "Kirikiño" gugari taldeaz, Kanpanzar eta Intxorta bitartean. Jose Mrrria Korta ta Saseta jausi dira Oviedo ondoan. Gu Ubera ta Basalgotan; apirilaren 25; Gernika sutan; Birkargi, Fika, Sollube, Artxanda. Bilbo jausi da, Jose Antonio Agirre'ren azken mezua; Enkarnataldeam, Laredo, Santoña. Espetxeratuak = 14 tiroz il dabez; espetxeko bizimodua. Nanklares, Dueñas, Karmena... Lakiotik iges.

Irugarren zatian neure liburuak datoz, urrenez urren aitatuak eta berezituak. Ikasle ta euskal idazle Markiña'n, Gasteiz'en eta Begoña'n; Donostiako "Euskal Esnalea"-n eta Zornotza'ko "karmengo Argia"-n idazten dot; "Karmel" (1950), "olerti" (1959); Milla euskal Olerki eder", "iru poema", "Eguneroko Meza", "Onbidea", "Gure Bertsolariak", "jolasketa", "Enbeita oleskari", "Bergili", "Abarrak", "Larrea eta Karmeldarrak", "Goiznabar", "Gure Urretxindorra", "Euskal Literatu-

ra" (5 ale argitaratuak), "Olerkiak-Lauaxeta", "Eskutitzak", "Eun maite-olerki onenak", "Euskal Elertia", "Lamiñak", "Egoitzak", "Arana-Goiri, olerkari", "Euskaldunak eta osasuna", "Nere baserria", "25 Antzerki labur", "Jainko Antzerkia", "Odisea", "Olerki guztiak", "Faust", "Ipuñak", "Gernika"...

Eta beste oneik írarkolan: "Eguerdi" (neure olerkiak) eta Santa Teresak berak idatzitako "Bizitza". Eta besteok oraindik argitaratu bage: "Begoñako Ama", "Lau poema" (R. Tagore), "Iparragirre" (nobela), "Euskalerrria bere zaarrean", "Kontu kontari", "Izlapurra", "Auzia", "Milla euskal olerki eder" (III), "Errendari" Abaren "Olerkiak", "Odak eta Epodoak" (Horazio'ren olerki guztiak, euskeraz eta latinez), eta abar.

Auxe dozu nire liburu "Oroi-txinpartak" deritxona. Eta amaitzeko laket bekik Aurre-Aprai'ek, Axangiz'ko euskal erne zentzundunak ZER onen azken zenbakian idazten dauana.

"Euskal-elertiaren arloan —diño-berezitasunez aittetu eta goratu bearrekorik baldin ba'da, auxe, Karmeldar olerkari eta idazle nekagaitz auxe dogu besteakandik berezi bearrekoa.

"Gazte-gaztetan asi eta oraiñarte, beti ekin izan dau-tso euskerea landu eta sendatzeari, bai bere-bcre ta bai itzulpen-lan ederrak egiten geure berbetearen onerako ta elderraren pizkunderako.

"Gure Karmeldar zintzo onentzat ez dauko ezetari-ko ezkuturik eta gogamen-askatasun osoaz idatzi izan ditu bere liburu ta aldizkarietan argitaratu dauskuzan idazlcn jakingarri ta ugariak. Bizkai'ko euskeraz ondo zein Gipuzkoa'ko erri izkera ugarian".

AITA ONAINDIA



OITURAK

ITZALTASUNA

ITSUAK

Joan dan uda onetan "Deia"n, Aranalde'k idatzia:

Lentxoago baten bere lagun bat, irratian bertsolariak "mekauen dioska" ibili zirala ta, naigabetuta aurkitu ei eban. Gizon a, itsua ei zan. "Errespetoa falta da" esan ei eutson itsu arek.

"Itsu batek asko ikusi daike", iñoan Aranalde'k. Eta itsu ori ez ei da eleiz-zulo bat, okerretara baiño: mutikotan monagilo zala, abadeak emondako jipoakin elizatik aldendurikoa Au irakurrita, Agirre Lendakariatiaz, Telebistan egindako saioan, aintziñako erako sozialista euskaldun jator arek iñoana gogoratu-azo eustan.

LENENGO LENDAKARIAK

"Don Jose Antoniok eukan, errespetua!". Esaldi ori esateko eran, eta baita antxe bertan eukan Agirre Lendakariaren semea aitatzean eta, esaten eban, "Don Iñakik esan dauanez..." arek, argi agertzen eban, berak be, orixe eukala: errespetua! Besteenganako errespetua eta bere buruarenganako be bai.

Eta sozialista zar arek miresten eban "errespetua" eta itsu arek "ikusiriko" errespetu falta ori, berak esan ebanez, Jainkoa zikindu gurako berba orreitan gorputz artzen dauala sarritan esan geinke.

ASPALDION

Ez jakin zelan, aspaldiko urteotan, ekandu itxusi ori izurri bat lez zabaldu dan gure artean: ikasien eta ezikasien artean; zar eta gazteen artean; siñistedunen eta siniste bakoien artean; euskaldun eta erdaldun, izkuntza bardiñaz bardindurik.

Aintziña, Truebari irakurri neutson, berak orrelako berba zatar bat lenengoz, "Ebrotik arantzako" bateri entzun eutsola. Gure gudaldian, orrelango itzak milizianoai zabal entzuten asi giñan. Orregaitik, Julene Azpeitiak "mekagotarrak" deitzen ei eutsen; eta "kakaboak" gure aitak.

LANGILLE TA IKASLE

Baiña orain, langile ta ikasle, pozik naiz asarre dagozalako, iru berba bakoitzeko baten be botatzen dabe batzuk. Jakiña, danok ez dabela olan berba egiten, ezta

asko gitxiagorik be. Baiña, olan berba egiten entzuteak, ez gaitu asko arritzen; ia normaltzat joten dogu...

Donostiko azkenengo estropadetan, TB 'tik argi entzun jakon patroi bateri... Gaur bertan, bere mutillagaz kontu-kontari joian umezain gazte-gazte bateri entzun dautsat: bere zainpeko umetxoak, entzun egingo eutson, oindiñokarren esateko gauza ez da izango baiña...

KATEKESIAN

Bein, Katekesiko nire mutiko batek, "mekaguen" *uts* bat jaurti eban. Orrelakoak beingoan ebagi bear nituala-ta, neuk be ezagutzen ez neban abots ikaragarriaz deadar egin neutson:

—Ori ez da esaten!

Umeok, txikiak ziran, ixilik, arnasa barik, niri begira geratu jatazan. Eta errime jarraitu neban:

—Ori ez da esaten! Ori, egin egiten da! Baiña leku baten!... Ia, esan, nun? Zein lekutan? Alango baten, neskato bat ausartu zan esaten:

—Inpernuan!

—Ez! Erantzun neutson. —Ori, komunean egiten da!

Guztion barre zantzuaz amaitu gendun arazoa. Katekesi-lagunai-eta kontaurik neure jazoeratxoa, batzuri ederto eritxi eutsien. Ostera, baten ustez, ume areik ez eben ezer atarako andik.

AZTERKETA

Nire ustez, "gauzea" obeto egin zeikean arren, zer zeaztu ba zan an, ez zan ain txarto egon. Naiz eta laiño artean, onelango zerbait ulertu eben: gure giza duintasunak, eziketa berezi bat eskatzen dauskula. Esateak eta egiteak alkarregaz joan bear dabela, alkarren begiramenez.

Jesus Solaun'ek barreka Don Resurreccioni itauntzen ei eutson, ia zergaitik "ka bi" idazten ete ebazan, berba osoa ipiñi bearrean.

Orrelango berbak aitatu be ez egiteak eta, larregikeriak be ba dira. Baiña orain sarritan, len aitaturiko kontuakin etab bat ez dagozanakaitik, faltso ta fari-seoak dirala esaten dabe. Batzuen eta besteen artean ba dagola aldea dirudi eta erdibide bat be bai.

MAITENA

AURRELARIAK

LIDERRA BETI

Gure alderdian ez egoala liderrik esan eban bein orain gogoratzen ez nazan bertako batek; liderra oiñarri maillako alderdikide saila zala.

Ez nator bat ori esan ebanagaz. Eusko Alderdi Jeltzalea'n beti izan dira liderrak, izen orregaz ezagutu ez ba' dira be. Lenengoa Arana Goiri tar Sabin, abertzale-tasunaren sortzaillea izan zan, gero Agirre'tar Joseba Andoni izan genduan eta Franco il ezkerero, Ajuriage-rra'ren ostean, bi euki doguz batera: Arzalluz eta Garaikoetxea.

LIDER BI

Azken aldi onetan, baten ordez bi euki doguz bate-ra. Ta ortik etorri da batez be gure alderdiaren apur-tzea, eta bi zatitan banatzea.

Lider bat bakarrik izan ba'gendu, buru lez bat baka-rrik ezagutu izan ba'gendu, ez zan ezer gertauko.

Arzalluz bakarrik izan ba'litz gure alderdiko alderdi-kidea ta ez Garaikoetxea, ez zan apurtuko Eusko Alder-di Jeltzalea. Ta alderantzira, Garaikoetxea izan ba'litz bakarrik bertako bazkidea ta ez Arzalluz, ez zan apur-tuko Eusko Alderdi Jeltzalea.

Au da, lider izateko lako gizon bi egon dira Arana Goiri'k sortu eban alderdian, Arzalluz eta Garaikoe-txea; euren ustez, biak ziran gauza orretarako ta biak nai izan dabe buru izan. Ta liderra, batek izan bear dau edonun eta edozetan be, bi batera ezin leitekez izan, ta batek alderdia itxi ta joan egin bear izan dau.

ALDERDIAREN AGINDUPEAN

Eusko Alderdi Jeltzalea'ko asarreak geien bat Garai-koetxea Euzkadi'ko Lendakaritza lagatera beartu zane-tik izan dira, au da Lendakaritzatik jaurtitea izan da errezoi nagusia.

Euzkadi'ko Lendakari izateko Eusko Alderdi Jeltza-lea'k lenengoz aukeratu ebanean, baldintza bat ipiñi eban Garaikoetxea'k: Jaurlaritza bere gain zan bitartean

alderdiaren agindupean bera ez egotea, bere karguan askatasun osoa izatea. Ta baietza lortu eban.

Bigarrenez Lendakari izateko aukeratu nai zanean be, len lez nai eban berak. Ta orduan ez eutsen emon nai izan askatasun edo buru jaubetasun ori.

Berak, orduan len lez ez izatekotan ez joiala esan eban. Ta Garaikoetxea aurkeztu ezik auteskundeetan asko galduko genduan bildurrez, burua makurtu bear izan jakon berari; lortu eban Euzkadi'ko Lendakari iza-teko bear ebala uste eban alderdiagazko askatasuna.

Eta bigarrenez be lortu eban, ala edo ola, Euzka-di'ko Lendakari izatea.

Nire ustez, bear leuke buru jaubetasun ori Jaurleri-tza'ko nagusi izatera doan Eusko Alderdi Jeltzalea'ko edonork.

BAT BURU

Demokrazia dagoan laterrietan auteskundetan, garai-llerteten dauan alderdiko buruak artzen dau Gobernu'ko nagusitza be.

Inglaterra'n konserbadoriak nagusitu ziranean, euren alderdiko buru zan Tchather andreak artu eban Gobernu'ko agintaritza.

Eta bardin España'n be; sozialistak urten eben nagu-si ta euren alderdiko buru zan Felipe Gonzalez jarri zan Gobernu'ko buru.

Eta beste laterri guztietan edo geienetan be olantxe jokutzen dabe.

Olan, Gobernu orreitako buruak eztabaida txikienik be ez dabe izaten euren alderdiakaz. Bai Gobernu'ko buru ta bai alderdiko buru gizon bat izaten da ta kitto.

ERITXIA

Onetan gure kontuak bestera dira. Beste guztiak baiño geiago dakigula uste dogu, demokratago gara-lado ta aurrera.

ERRIGINTZA

Ta lengoari jarraituaz, Garaikoetxea 'ren Lendakari-tzako bigarren aldia apur bat aurrera joan zanean, LTH edo Probintzien Legea zala ta nastea sortu zan.

Ni, olako kontuetan ez jakifia, eztabaida aretan, Probintziak baiño Eusko Jaurlaritz'a indar geiago izan bear ebala ziñoenen aldekoa nintzan; onetan Garaikoetxea'gaz bat egiten neban.

Len, Euzkadi Foruakaz jaurriten zanean, Probintzia hakotxa bere buru jaube zan, egia. Baiña ori ez da naikoa errezo'i orain gauzak lengo erara nai izateko. Len eusko Probintziak bata besteari lepoa (bizkarra) emonda biziten ziran eta iñoiz alkarren aurka gudea egin be bai, Beotibar'en lez.

JAURLARITZA NAGUSI

Aldundientzat edo Probintzientzat aginpide geiago eskatzen dabeenak Jaurlaritz'a danen gaiñetik egon bear dauala diñogunoi esaten euskuen errezo'i bat au zan:

Len Madrid'ko zentralismuaren aurka giñala ta orduan (Eusko Araudia lortuta gero) zentralismua nagusi nai genduala Euzkadi'n

Bai, Españia anditik (ta ez andia dalako) geurea dan askatasuna lortu nai genduan, Probintziak izan eben Kontziertu Ekonomikoa be aitatzen genduan eta eskatzen genduan.

Eta gero zerbait lortu genduan, Euzkadi txikia ez genduan nai zatitu. Probintziak be izan eiela agintea, ortik Euzkadi'ri kalterik etorriko ez jakon kontuetan. Baiña, beti, Eusko Jaurlaritz'a danen gaiñetik dala.

EUZKADIREN ONA

Eusko Araudia, Estatutoa, eskatzen ibilli giñanean, bai orain eta bai Errepublikan, Euzkadi'rentzakoa eskatu genduan. Ez jakon iñori bururatu Probintzia bakotxarentzat eskatzea.

Izan leiteke Arana Goiri 'ren naia, Probintzia bakotxak aginpide andiagoak izatea. Bai, Sabin'en nai ori da Euzkadi 'ren lengo edestiagaz bat datorrena. Baiña Euzkadi'ren onak, len be ez eban ori eskatzen eta orain be ez. Len be obe zan Euzkadi'rentzat Probintzia guztiak beti alkartuta bizi izan ba'litz.

ASARREAK

Lenago be izan dira asarreak Eusko Alderdi Jeltza-

lea'n, beste alderdietan izaten diran lez. Baiña azkenengo urteotan ikaragarriak izan dira.

Lenengo Ormaza 'rena esango geuntsakeana izan zan. Ez dakit, esaten asteko moduan, zer jazo zan. Bakarrik, lotsagarria izan zala orduko alde bietakoen jokabidea, esan neike.

Urrengo napartarren asarrea izan zan. Orduan EBB'k edo Arzalluz'ek egin ebana ez egoan txarto. Alianza Popular'egaz egin eban itzarmenagaz, gure alderdiak, iñun ezer galdu, barik asko irabazten eban Bilbo'ko udaletxean, Gazteiz'ko udaletxean eta Araba'ko Aldundian.

Naparra'koak ez eben nai, euren Probintzian zein Lendakari izan bear zan erabillen burrukan, Eusko Alderdi Jeltzalea'k biderik erreztuterik, eurak ziñoenez, Euskalduntasunaren areriorik andienak ziran eskumakoai.

Orduan sozialisten alde ziran Naparra'ko Eusko Alderdi Jeltzalekoak'k.

Sozialistai lagundu nai eutsen eta alan egin eben euren alde autarkia emonaz. Alianza Popular'eri laguntzeagaitik autarkirik emon barik gelditzea, absteniutea, etsaiari saltzea zan gure alderdiko napartarentzat.

NAPARROA GAUR ETA LEN

Gaur ez dirudi orrenbeste nai dautsoenik orduko abertzaleak sozialistai. Urralburu, onetakoa, or ibilli da ETA'ren aurkako itzarmena egin naian, baiña HB kontuan artu barik, Eusko Alkartasuna izan da uko egin dautsan alderdi bakarra.

Ez dot uste orrenbesteko okerra zanik Arzalluz'ek eta lagunak egindakoa. Ondo jokatu ebela esango neuke nik.

Edozelan be, napartarren aspaldiko kontu bat emen aitatzea ez dot uste txarto etorriko danik.

Orain berrogeta amazapi urte, ain zuzen Errepublikan etorri zan urtean, bat eginda joan ziran Madrid'ko Lege Biltzarrera, Eusko Alderdi Jeltzalea ta eskumakoak, Naparra ko Beunza karlistea buru zala. Euren artean zan Agirre be.

UNE LARRIA

Eusko Alderdi Jeltzalea'n izan dan eztabaidarik andiena ta asarreak sortu zituana, Kondaira Probintzien Legea edo LTH dalakoa zala ta izan zan. Ori izan zan batez be alderdia apurtzeko bidean sartu ebana. Izan be gogorra izan zan a! Bere alderdiak jaurti kanpora, edo urten eragin, Lendakaritzatik Garaikoetxea'ri.

Olakorik inun ez dogu ikusi.

Bein Garaikoetxea Euzkadi'ko Lendakari izatetik jaurtia izan zanean, bereala ikusi zan Eusko Alderdi Jeltzalea'ko eztabaidak txarto amaituko zirana.

Omenak ziran apariak egiten asi ziran an eta emen Lendakaria izandakoari. Giroa bero-bero ipiñi eben bere aldekoak.

Berak, lenengoan, alderdian jarraitu nai ebala esan eban eta eurak be barruan jarraitu eiela eskatu eutsen beren alde agertzen ziranai.

Baiña ez dirudi biotz-biotzetik urteten jakozan berak ziranik orreik.

BAKERIK EZ

Abertzaletasun txikienik be ez ba-euken moduan jokatu eben Eusko Alderdi Jeltzalea'ko alde bietako goi maillakoak.

Eta goi maillakoak bakarrik ez ziran izan txarto jokatu ebenak; baita oiñarri maillako jendea be.

Alderdikide ziranak alderdiak batera jarraitu eian alegindu ba'ziran gogor, gatxa orrenbestera ez zan elduko. Baiña danak edo geienak bereala Arzalluz'en alde edo Garaikoetxea'ren alde jarri ziran eta okerra, andi andia egin zan.

Arregi izan zan bakarrik benetan bakearen alde agertu zana, alderdia apurtu ez eitean abotsa jazo ebana.

Baiña ez eban lagunik izan. Gero ta okerrago joian. Eusko Alderdi Jeltzalea'ko buruzagiak, Garaikoetxea'ren aldekoak alderditik joan eitezalla nai ebela zirudian. Eta Garaikoetxea'ren aldekoak barriz, jaurtiak izan eitezala.

Ta azkenean be apurtu zan alderdia, joan ziran Eusko Alderdi Jeltzalea ren jokabideaz atsegiñez ez egozanak. Ta tuti kontenti. Bereala sortu eben alderdi barria, Eusko Alkartasuna deritxona; ta Garaikoetxea be joan zan Eusko Alderdi Jeltzalea tik eta alderdi barriko Indakari egin eben, uste genduan legez.

EZBARDINTASUNA

Joan ziranak, emon eben oinkadea emoteko errezoiak ba-zirala erakutsi naian, alderdi barriari lengo alderdiagandik alik eta geien urrundu leitekean zuzenbidea emoten alegintzen dira.

Gogorrek edo erradikalak ei dira euren eskabideetan; gizarte arazoak edo langilleen auziak be asko arduratzen ei ditu. Ta batez be lengo alderdia baiño abertzaleago ei da. Askatasun osoa edo independentzia nai ei dau; orain daukagun Araudia edo Estatutoak balio gitxi ei dauko.

ABERTZALETASUNA

Nik ez dot uste askatasun oso zale edo independentzia zalea izatea abertzaleago izatea danik gaur egunean Gernika'ko Araudia osorik lortuta bakea ta lana geitu daitezcan alegintzen dana baiño.

Euzkadi'ren ona ez dator askatasun osoaren aldeko amairik ez daben auskan edo burrukan jardunaz, Eusko Araudia osorik lortu ta bakearen eta lana geitu daitecan aleginduaz baiño.

Bioztun dago Garaikoetxea. Irabazle urtengo ei dau urrengo auteskundetan. Ala ba'da, Euzkadi'ren onerako izan daitela.

Ta amaitzeko: Txarto-txarto eretxi jatan alderdiaren apurtzea; ta guztiz ondo artuko neuke biar edo etzi batu naian asiko ba litz.

Baiña olakorik ba'litz, argi ta garbi jarri bearko litzake, len, alde bietakoena izan zala errua ta orain (noiz dan) ez dala izan galtzaillerik eta irabazlerik.

KAMIÑAZPI

IDAZKOLAREN OARRA: Izenpetuta datozen idaz lanetan agertzen diran eritxiak ez dira beti izaten "ZER" aldizkarirenak, idazlea da erantzule.

AFGANISTAN

(An eta emen arazo berdiña)

Lurraldea

Gugandik urruti aurkitzen da, Asi'aren erdi-erdian Afganistan'go lurra. Dagoan tokirako —Iran, Pakistan, Indi, Txina eta Sobietarren Alkartearen erdian—, ez da lurralde zabalegia: 649.969 kilometro besterik ez dauz (504.782, Espāñi'k; 543.945, Frantzi'k). Lur legorra guztia; arri ta ondar, erdi-lekaroa. Orregaitik bizi da bertan ain jende gutxi: doi-doi 17 milloi. Musulmanak danak; eta nekazariak; nekazariak baiño geiago, aberetzaiñak: Ardi, bei, auntz, eta kameluak.

Mendiz bete-beterik dago, munduko mendirik garaie-netakoak, baiña arkaitz utsak guztiak, antzuak zearo.

Edestia

Aspaldidanik da ezagutua, europarrentzat, Afganistan. Kristo-aurretiko 328'garren urtean, Alexander Nagusia sartu zan an. Gero, Grezi'a garaiturik, Erroma'k artu zuan lur ura beretzat; eta 1205'garren urteaz gero, mongolitarrek, Gengis Kan buruzagi zutela.

1849'an Inghlanderria egin zan Afganistan'en jabe, 1921'ean Aman Ullah erregeak askatasuna lortu zuan arte. 1405'ean Tamerlan il zan ezkerro, apika Afganistan'ek pake-aldi luzerik izan eban. Ezta gero ere:

1973'an, Errepublikak biurtu zan. Baita laister komunismoaren menpera jausi ere. Erria ordea, Jaurlaritza komunistaren aurka jeiki zan. Jaurlaritzak, agintzen jarraitu aal izateko, Errepublikak Sozialista Sobietarren Alkarteari eskatu eutsan laguntza. Ta an sartu ziran tiroka sobietarrak, afganistandarrei indarrez komunismoa lepo-gaiñean ezartzeko.

Ez ziran auek errenditu. Oraindik orain-oraintxe, andik irten-bearrean aurkitu dira, 1986'az gero, gudari-talde ugariak.

Abertzaletasuna

Abertzaletasuna, edo musulmandasuna. Maometa-

rentzat berdiñak eta gauza bat bera bait dira, politika ta erlijioa.

Danadala, bikainki jokatu dabe Afganistan'go basagudariak eta azkenean, lortu dabe gurenda. Len Bietnan'dik Laterri Alkartuak bezala, Afganistan'dik irten-bearrean aurkitu da orain Sobietarren Alkartea.

Gauza bat adierazten dausku orrek. Gaur, Erri txiki batek, Erri aundiago bat garaituaz bere askatasuna lortu daikela. Baiña, ortarako, bi baldintza betetzen ba'dira:

— Kanpotiko laguntzarik ez faltatzea.

—Erriaren barruan abertzaleak bat egiñik egotea.

Bietnandar komunistei ez yaken errusiarren laguntzik peitu. Afganistan'go musulmanei, ez yake amarikatarrenik peitu.

Gudatekoan, bat egiñik egon ziran bai komunistak Bietnan'en; bai musulmanak Afganistan'en ere.

Alkarturik jarraitzen dabe bietnandarrek. Komunismoan ez bait da zatiketarik, zatiketazale guztiei bereala lepoa moztutzen yakelako. Afganistan'en ordea...

Ango eta emengo arazoa

Afganistandarrek lortu dabe garaitza..., eta une berean, zatitu egin dira.

Emen, Euzkadi'n, gure buruaren jabe izatea lortzeko adiostasunera iritxi gintzazanean... zatitu egin gintzazan!

An, ez zan zatiketarako arrazoirik. Danak musulmanak dira, danak sunnitarrak gaiñera, an, xiitarrak, oso gutxi diralako. Danak dira abertzaleak eta politikabide berekoak: errupubikazaleak danak.

Zer izan ote dabe ba, zatiketaren zio bakarra? Jauntxokeri lotsagabea. Jauntxo geiegi, eta danak agintari guren bakarra norbera izateko irrikatzen!

Emen ere, komunistak diran H.B. eta E.E.-koek kendu ezkerro, sabindarrok, danok, aburu bateko, eta

politika-bide bat-bereko abertzaleak gintzazan. Baiñan an bezala, emen, jauntxokeri iguingarriak izorratu gaitu. (Ez ikaratu, irakurle. Itz mardul zikiñak, gertakizun lodi zikiñetarako asmatuak izan dira-ta).

Ez dogu emen beste arrazoirik. Abertzaleok, bata bestearengandik, jauntxokeriak bereizten gaitu.

Jauntxokeriak urratuko dau Españi'ko A.P. Alderdia ere; len, jauntxokeri berak, C.D.S. Alderdia urratu eban bezala.

PSOE'tarrek eman dauskue ikasbide egokia. Jauntxokeriaren erruz, zatiturik gelditzeko arriskuan egon dira Euzkadi'n, baiñan jakin dabe, jauntxokeria garaituta, Alderdia osorik gordetzen.

Zaillagoa izango yaku abertzaleoi batasuna bir-egitea.

Ortan saiatu bear genduala, esaten neutsan asko ez dala Araba'ko abertzale bikain bati. "Ori, ezin daitekean gauza da", erantzun eustan berak. "Ori, ura ta oligoa batzea bezain gaitza da!".

Eta, len ez ur eta ez oligo, abertzale uts ziran sabindarrak nork biurtu dauz alkarrekin batu ez daitezken ur eta oligo?

Jauntxo batzuen jauntxokeriak.

Ez dabe jauntxo oiek Euzkadi'ko lurrean obiratuak izaterik merezi

Ta? Zer merezi dabe, jauntxo oiei ostiko bat emanda Sabiñ'en Alderdia bir-bateratzen asteko gauza ez diran base edo oiñarriko abertzaleek?

Orrenbeste odol, orrenbeste negar, orrenbeste izardi, orrenbeste borroka, orrenbeste oiñaze ertzain españiarren eskuetan, orrenbeste espetxe-aldi, orrenbeste diru-zigor, orrenbeste jende erritik iges-egiña, ainbeste naigabe etxean gelditu ziranen artean, orren ipernu-giro luzea Euzkadi'rentzat eta Euzkadi'ren seme zintzoentzat..., eta, jabe gintzazanean, garaille gintzazanean..., ZATIKETA!

"Il naiago dot ikusi baiño Aberriaren amaia", abestu eban Sabiñ'ek.

Zer abestuko ote leuke gaur, Aberria erdibiturik ikusita?

LATIEGI'tar BIXENTE

OARRA: Azken- egun auetan entzun dozu segu-ruaski, Errusi ostera Afganistan'go abertzaleen aurka, gudarozte-talde berriak bidaltzen ari dala. Ez dio ajolik. Afganistandarrek guda irabazi dabela esan dogu guk idazlan ontan. Eta ori bera bir-esaten dogu orain ere, Errusi berriro Afganistan'en indar berriekin sartu dala jakin dogunean. Sobietarrek galdurik dauke Afganistan'go gudua. Iparramerikatarrek Bietnan'dik irten bear izan eban bezala irten bearko dabe sobietarrek ere Afganistan'dik. Gaurko egunera ezkerro, Afganistan'en arazoa ez da Errusi. Afganistan'en arazoa, Afganistan'go abertzaleen zatiketa txoro eriogarria da. Euzkadi'ren arazoa bera!

ESPAÑI'ko A.P.'ren GIROA ERE ALDATUTA AGERTU jaku.

OLERKIAK

ESAIK LORAK NON DAGOZAN

Esaidak lorak non dagozan. Non geratu dozak?
Esaidak lorak non dagozan. Zer jazo dok?
Esaidak lorak non dagozan. Neskatoek arin bai arin
batu joezan.
Noiz ulertuko ete dok? Noiz ulertuko ete dok?

Esaidak neskatoak non dagozan. Non geratu dozak?
Esaidak neskatoak non dagozan. Zer jazo dok?
Esaidak neskatoak non dagozan. Gizonek arin bai arin
artu joezan.
Noiz ulertuko ete dok? Noiz ulertuko ete dok?

Esaidak gizonak non dagozan. Non geratu dozak?
Esaidak gizonak non dagozan. Zer jazo dok?
Esaidak gizonak non dagozan. Alde egin joen, gudea
asi dok.
Noiz ulertuko ete dok? Noiz ulertuko ete dok?

Esaidak gudariak non dagozan. Non geratu dozak?
Esaidak gudariak non dagozan. Zer jazo dok?
Esaidak gudariak non dagozan. Obiruneen gainetik jabik
aizea.

Noiz ulertuko ete dok? Noiz ulertuko ete dok?

Esaidak obiruneak non dagozan. Non geratu dozak?
Esaidak obiruneak non dagozan. Zer jazo dok?
Esaidak obiruneak non dagozan. Uda aizeak loratu era-
gin jozak lorak.
Noiz ulertuko ete dok? Noiz ulertuko ete dok?

Esaidak lorak non dagozan. Non geratu dozak?
Esaidak lorak non dagozan. Zer jazo dok?
Esaidak lorak non dagozan. Neskatoek arin bai arin
batu joezan.
INOIZ ULERTUKO ETE DOK, INOIZ ULERTUKO
ETE DOK...

P. Seeger
Bilbon 88.eko Urrilaren 12an
germanieratik euskeratua.
L MARTIARTU

MAITATU ABESTIA

Maitatu abestia bai gogoz ta bai biotzez,
maitatu eta abestu azkatasunean,
gogoa zentzuz, bateratuz oldozkunean,
bizi-sen oro abestuz egizko abotsez.

Maitatu iturburu goitietan ta, aizeetan,
abestuz abestiaren sen, betikotasuna
ta, maite izan, abestiaren argibideetan
daztatuz barruko gogamen, duintasuna.

Abestia izan bedi munduko mintzoa,
laungoikozko argitasun, izki bizikorrez,
izan bedi alaitasun irrintzi, zantzoa.

Abestia izan bedi, larrosa usainkorra,
margo eder ta doñukera ereskorrez,
izan bedi eguntze urdin baten zilborra.

(1988)
MUNIATEGI^{tar} SAIN

FEDEGABEZIA TA FEDEA

Jainko biziaren egarriz dot nik gogoa;
biur idazu berau, Kristo, patin garbia
artu aal dagidan fedearen euria
ta bai pozik gozotuko neukela agoa.

Tanto bat bakar bakarrik litzakit naikoa,
galdu ezingo arren itxasoan bizia.
Ezta bizi, diño, dakusdana arpegia,
ur ortantxe dago nire osasun osoa.

Egarririk kentzen ez dauan jakintza baten
eki biluzak jo deust bular ta bekokia.
Biziaren ur gardenik ez dot nik edaten.

Au izerdia, duda mingotsen izerdia.
Arnasa mutu au ken idazu, Kristo, arren.
Sinesten dot, lagun biren fedegabezia.

A. BIDAGUREN

JUANTXO-TXIKIREKIN GOGOR ETA BIGUN

(20)

Azia lez umea be egunero aldatzen doan iakia dogu. Alda-bear ori berarekin daroa jaiotzetik. Eta, ori olan ba da, berarekin darabilgun jokabidea be alda bearrezkoa da apika-apika, adiña aldatzen doan neurrian.

Ejenploa ona da eta Juantxo-txiki ezitzeko biderik onena; alan be, bera aundiagotzen doan neurrian, ejenploak indar gitxiago.

Edozelan be, Juantxo-txiki'k txikia dan artean, gurasoen indarrez balia bearco dau, bera indargabea izanik. Indar maitekor orren bear...

Zeure buruari indar egin bearco dautsazu, umetxoa ondo eziko ba'dozu. Bere eziketean ez bigunkeririk erabili. Zuk indartsu jokatzear konbeni jako. Indartsu eta leun. Gogor barrutik eta bigun kanpotik. Giza-soiña bera be azaletik giar biguñak daukaz eta koipeak; barrutik, ordea, azur gogorak eta orrelan, biguntasunik galdu barik, gogortasuna ba'dau zutunik egon aal izateko.

Bigunkeriz ba'zabiitz, zugan dauen ustea galduko dau Juantxo-txikik. Beste aldetik, barriz, gogorkeri utsez ez dozu askorik lortuko. Biak bearco dozuz alkaturik, umetxoa ondo eziko ba'dozu: biguna eta sendoa. Orrelan jokatu aal izateko, zeure buruaren jabe izan bearco dozu eta jabetasun ori Juantxo-txikiren aurrean agertu. Era orretara ikusten ba'zaitu, zure esanetara etorriko jatzu umetxoa. Ostantzean, naiko lan.

Obearen billa ibiltea gure barruko bearbizuna dogu; tarteka, ostera, obearen billa ibiltea onaren aurka jokatzear da: ohea billatu ez eta bitartean ona galdu. Ona aukeratzeaz zuur jokatzear da. Ohea ezin dogunean, onari makurtu geure gogoa.

Onak bat baiño geiago diranean eta alkarrekin eroaten ez diranak, orduan aukera egin bearrezkoa da. Aukeratzeak galera bat dakar berarekin: aukeratzear ez dogun ona galdu egiten jaku. Itsasora nai nuke lanean; baiña, legorreko eginbearra be maite dot. Lurra aukeratzear, itsasoa galdu dozu. Bat artzeaz besteaz izteaz da. Bat artu eta beste guztiak itzi.

Jainkoak bagiña, diran guztiak batean izango geunkez eta toki guztietan batera egongo giñake. Ez gara Jainko eta nai-ta-nai ez aukera egin bear bein baiño geiagotan.

Zeuk aukerak egin eta itzi bear dozuzanak, itzi. Bein aukera egin ezker, jarraitu aurrera, atzera begiratu barik. Aukerak egiten erakutsi Juantxo-Txikiri eta aukeratu ez ditunak galtzen be bai.

Olan eziten da gure gogoa.

Arazo guztietan zagoz zu beti trankil Bururik galdu barik Juantxo-txikiren aurrean. Zeuk burua galtzen ba'dozu, zer egingo dau Juantxo-txikik...? Uskeri bategaitik ez gerrarik armatu berarekin. Ori baiño obe dozu BARDIN GERATZEA.

Bizkaia beti

Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CA~A IJE AHORROS
VIZCAINA